



## **FINANTZIAZIO ITURRIAK** **(diru sarrerak)**

Guztira 4 bazkide gara, eta negozioak funtziona dezan, horretan inbertitu behar dugu. Horretarako, bazkide bakoitzak 25.000 euro inguru inbertitu behar ditu. Lokalaren alokairua ordaindu behar dugu, diskoteka berri itxura hobetzeko eta azkenik gure zerbitzarietara eta segurtasuneko langileei ordaindu.

$100.000 / 4 = 25.000$  euro bakoitzak jarri behar ditu.

Gutako bakoitzak 25.000 euro jarri behar ditu, bai bakoitzaren aurrezkietatik, bai senideen laguntzarekin.

Banketxean negozio eta bideragarritasun plana aurkeztuta eta beste 400.000 euroak mailegu baten bitartez lortuko dira.

### **ZERBITZU/PRODUKTUEN BITARTEZ LORTUTAKO DIRU ITURRIAK**

Gure sarrera gehienak bezeroek diskotekara sartzeagatik ordaintzen dituzten sarrerak dira. Horretaz gain, beste diru iturri nagusia edarien salmentetatik etorriko da, zerbitzarietara zerbitzatzeko dituzten kopa eta bestelakoak.

Arropa zaindari bat dugu, eta bezeroak euro bat ordaintzen du jantzi bakoitzeko.

Kopa bakoitzak 7 euro balio du eta lokalerako sarrerak 12 euro eta kopa bat barne ditu. Normalena da jendeak kopa hartzea eta ondoren beste bat eskatu nahi izatea, orduan hasten gara diru gehiago irabazten.

Laburbilduz, hurrengoak izango dira gure prezio nagusienak

-Diskotekarako sarrera 12€

-Kopak 7€

-Arropa Zaintza 1€

Diskotekan 500/600 pertsona inguru sartuko dira, gure estimazioa da 500 sarrera inguru saltzea irekiera egun bakoitzeko eta kopekin 7 euro ipinita 250 kopa eta txupito.

Bestelako diru sarrerek lortzeko aukerak aztertu ditugu. Markekin hitz egingo dugu gure diskoteka patrozinatzeko eta gu bere markan inbertituko dugu diskotekan eta irabazten dugun portzentai %7 bat ematen diogu eta bestea gurea izango da.

<u>Hasierako inbertsio</u>	<u>Gastu/hilab</u>	<u>Diru sarrera</u>	<u>Irabaziak</u>
100.000 € erreforma, gure ekarpena	zerbitzari= 4800	sarrerak =72.000 €/hila	98.000-51.200
400.000 € mailegua	segurtasun=4000	Edaria= 21.000 €/hilab	
	dj= 1200 (300 astero)	Babezleak=5000 €/hila	
	sokorrista=300€		
	3 autobusak=900/3=300 autobus bakoitza		
	mailegu kuota= 40.000c(%10)		
<b>totala= 500.000€</b>	<b>totala= 51.200€</b>	<b>totala=98.000€</b>	<b>totala=46.800/4 =11.700€/perts</b>

#### **GURE IDEIAK DUEN ARRISKU FINANTZARIOA**

Badakigu ideia arriskutsua dela, baina epe luzerako onurak eman diezazkigukeela uste dugu. Kosta egingo zitzaigun diskotekak funtzionatzea eta, batez ere, diskotekarekin eta negozioarekin funtzionatuko zuen lehen urtea. Izan ere, kontuan izan behar dugu urte batzuk igaro arte ez garela dirua garbi irabazten hasiko inori ezer zor izan gabe. 400.000 mila euro baino gehiago zor dizkiogu bankuari, eta bankuak uzten diguna baino diru gehiago zor diogu. Horregatik pazientzia izan behar dugu gure kontura dirua irabazten hasteko. Pazientzia izan behar dugu gauzak ondo aterata daitezen.

Horrelako negozioetan pazientzia funtsezkoa da. Badakigu zaila dela dena primeran ateratzea, baina pixkanaka ateratzen joango diren emaitzak. Argi daukagu pixkanaka haziko garela. Inor ez da bapatean iristen, behetik hasita. Hori da industrian hazteko dugun aukera. Laurok uste dugu negozio hau aurrera aterako dela.